Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aña Bizkaitxipi

Gamarte, Nafarroa Beherea (1936)



Aurkibidea

Biografia



Gamarten sortu zen 1936an. Ama zuen bertakoa eta aita, berriz, Donaixtikoa. 4 ahizpatan zaharrena. Ameriketan bizi izandua. Laboraria izan da beti. Ezkondu ondorenetik Ahatsan bizi da. Bost seme-alaba izan zituen.

Zintak

GAM-001

- **Proiektua**: Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Data**: 2015-03-30
- **Iraupena**: 28 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Artzelus, Alex
- **Emalea**: Artzelus, Alex

GAM-002

- **Proiektua**: Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Data**: 2015-03-30
- **Iraupena**: 28 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Artzelus, Alex
- **Emalea**: Artzelus, Alex

Pasarteak

1. Gizonak eta emakumeak etxetik kanpo lanean

- **Erref**: GAM-001/003
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:00:39. **Bukatu**: 00:01:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Emakumeen eta gizonen lana etxetik kanpo nolakoa zen.

Transkripzioa
- Ordian oaiko mementotik arrun kanbio zen denbora hetan, eta janari presta, lehenik emaztiak kanpoan aritzen ziren lanian gizunekilan, denak, denak, gizonak bezala, dena eta eskulana zen eta taillia, ta xixpa ta arrestelia ta leatxunak eta...

2. Sukaldea nolakoa zen

- **Erref**: GAM-001/004
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:01:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Lehenagoko sukaldea nolakoa zen.

Transkripzioa
- Hola, eta gero barnian berriz eta bon, gure etxean bazen furnegua eta bakizu e egurrezko kozinan itekoa bena bestenaz eta anitz gauza negian eta supazterrian iten zen, zopa're supazterrian iten zen, eta berriz eta kozinatzia're ba.
- Dena supazterrian.
- Dena supazterraikilan.
- Eta egurraikin berotu.
- Egurraikilan.

3. Ohea berotzeko zer?

- **Erref**: GAM-001/006
- **Iraupena**: 0:00:12. **Hasi**: 00:01:34. **Bukatu**: 00:01:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Ohea berotzeko erabiltzen zutena.

Transkripzioa
- Gero etxen eta berotzeko, oherat joaiten ginelaik eta berotzeko, iten ginien eta brikak, brika batzu berotzen gintien supazterrian eta hek oihal baten gaiñian emaiten gintien zangoen berotzeko.

4. Sukaldeko tresneria

- **Erref**: GAM-001/007
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:01:46. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Sukaldeko tresnak: furnegua, neskatoa eta burdin kaxola.

Transkripzioa
- Eta bazinutena holako txapaik edo... nola erran... supazter-supazterra edo...
- Guk supazterra, supazterra gindien.
- Bazinuten halako burdiña berotzen zena egurra sartu eta, halako txapa gisako bat.
- Non, ba, hura ez, hura kozinakoa zen bakarrik.
- Hori ere bai?
- Hori kozina, konzinain egiteko e, zopa iten gindien ta labiak eta baziren han.
- Nola deitzen zinutena hori?
- Furnegua.
- A furnegua!
- Ba ba.

- Ta gero aipatu duxu hor eta neskatoa, nola...
- A neskatoa, ordian eta kozinan iteko, supazterrian iteko, bazuxun eta zer bat duxu, grilla bat bezala, largi-largia, eta gero bazixin gider bat eta hura laratzatik dilindan ezartzen zuxun.
- soixu.
- Eta gero ordian haren gaiñian zartaña finkatzen zuxun berdin, eta gero hartan kozinatzen zuxun, edo eta zera, gero bazuxun burdin kasola re ba, ezartzen ahal zuxun han.
- Burdin kaxola deitzen zinuten hori eta ezartzen zena?
- Burdin bat eta neskatoain gaiñen finkatzen zuxun burdin kasola hura.

5. Mestura nola egiten zen

- **Erref**: GAM-001/008
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:02:42. **Bukatu**: 00:03:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:
Arto irina ogi pixka batekin eta altxagarriarekin nahastu ostean, ontzi baten sartu, hau gaiztainondo orriz estali eta labean sartzen zen.

Transkripzioa
- Eta gero ene haurrian, ogia're iten zuxun etxean.
- Ohia?
- Ogia ba.
- A ogia, ogia ta mestura ta, taloak...
- Mestura zerri deitzen dakoxu?
- Ordian mestura eta artoaikilan egiten zuxun ogia bezala, eta zer bat, eta gero hura iten zuxun lehenik eta ogia estekatu eta pausatzera uzten zuxun eta gero taloa eta esteka [bazerrate] poxiño batekilan, altxagarri hartia puxiño batekilan iten zuxun arto irina ixtekatzen eta gero arto irina ezartzen zuxun kasola zahar batzutan. Biltzen gintxin eta lehenik oihanian gaztain hostoak eta gaztain hostoekilan eta tapizatzen gintxin untzi hek, hain barnian ezartzen mestura eta gero hek labian erratzen zitxun, ogia ta horiek.
- jaja, soizu.

6. Tomate saltsa nola egiten zen

- **Erref**: GAM-001/009
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:03:31. **Bukatu**: 00:04:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:
Tomate zatiak, olioa eta piperrarekin nahastuta poto batean sartu eta gero horiek gauez labean sartuta bakarrik egiten zen.

Transkripzioa
- Eta geo sasoiñian, sasoiñian eta iten ginixin tomatiak iten zirelarik berriz, tomatia frango iten baitzen etxeetan, ordian tomatia berriz iten ginixin eta bildu, xuritu, xehatu, botiletan ezarri, olio xorta bat ezarri eta, bíper puxka bat, buxuna ezarri, hura estekatu, eta gero berriz hura ere holako taula baten gaiñian ba zu... eta alde, bi aldeetarik bazitxun eta alanbre batzu eta ezarriak, ordian botilla hek alanbriaikilan eta estekatiak zitxun eta ogia goizian ina zelaik, ordian ogiak atera eta gero labiak baitzitien aho batzu airia kurritzeko, hek tapatzen zitxun eta gero ezartzen gintxin berdin hogoita hamar pinta eta tomate edo , hek labian sartzen gintxin eta hek gauaz berak [zerlitzatzen] zitxun.
- Soizu.
- Labeko bero hartan.
- To.
- Hori're iten zuxun denboran.

7. Ogia nola egiten zen

- **Erref**: GAM-001/010
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:04:23. **Bukatu**: 00:06:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:
Ogi aska erabiltzen zuten. Ogiak ohean sartzen ziren altxa zitezen. Ogia egiterakoan, puska bat aparte zuten zen, eta hura erabiltzen zen hurrengo ogia egiterakoan altxagarritzat. 13-14 urte zituenera arte egin dute ogia etxean, handik aurrera okinak garia erosten hasi zitzaizkien.

Transkripzioa
- Eta zer gehio bazuxun?
- Eta gero...
- Oraska sukaldian bazinutena ziek ?
- Zer nahi duxu?
- Ogiaren iteko halako aska bat...
- Ba!
- Ogiaren iteko, hori nola deitzen duxu?
- Ogi aska, ba, hartan estekatzen zuxun. Ta gero eta ogiak estekatu, ezartzen zuxun, eta haiendako bazuxun oihal espresa, haien barnian ezartzen zitxun eta gero denboran oha... ohe... ohi... ohiain barneat emaiten zuxun. Ohian bakixu? jendiak...
- Ba
- Ohia berotia baitzuten.
- Ah!
- Eta gero ogiak altxatzeko behar baitzien berotasuna, negian eta ohian ezartzen zitxun estalgiekilaneta berotasun hartan hant zadin.
- A bai eh? Eta ogiain iteko...
- Eta gero,
- Iziaten zen legamia edo nola deitzen zinutena? Altxagarria?
- Altxaarria ba, ordian altxarria, altxaarri hua re oai [...] ibiltzen duxu, denborian ez zuxun [...] ibiltzen, denboran, egun konpazione ogia iten bazen, hartarik, ogi eta pasta puxka bat begiratzen zuxun bola batian, eta

hura ondoko zortzian, ondoko zortzian, hari axala ken ta han zen eta matoñua iten zuxun ogi eta irinaikilan ta huraikilan ixtekatzen, ta hura, konpazione eta ibiakoitzaikin ogia iten bazen, ostiralaikilan eta hura ezartzen zuxun untzi batetan eta hura bihamuneko harrotuik jartzen zuxun, eta bihamunian ogia iten zelarik, ogiain pasta hari hura ezartzen zuxun, altxaarria.
- Aha, ados!
- Ordian denak eta etxeko gauzekilan iten zuxun, ez xinen eta ez xinen kanporat joaiten gauzen txeka, non.
- Untsa orroitzen xira hortaz ere!
- A ba ba ba!
- Eta ainitz inikoa zira?
- Eta ni ogia, hartako doia bon eta hamahiru hamalau urte nintielarik ere ogia inik izan da gure etxean.
- Bai e?
- Ba ba ba ba!
- Eta noiz utzi zuxun hori?
- Gero hasi zuxun eta bullanderak hasi zitxun eta ogi bihia etxetik hartu ta zaku bat ogiaindako hunenbeste ogi ekartzen zixin etxeat, tokada hortan. Ba!

8. Eremu librearen eta okupatuaren arteko irin kontrabandoa

- **Erref**: GAM-001/011
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:06:21. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Laburpena:
Alemanek okupatutako eremuaren eta eremu librearen artean tranpak egiten zituzten garia ehotzerako orduan.

Transkripzioa
- Gero xuriketa ere aipatu duxu.
- Ah, ta ba, ta gero ordian irina're, gerla denboran eta, ordian kontrabandak zitxun.
- Ah, hemen ere bai, eh?
- Ba, gu, ordian gu "zone libre"-tan zuxun Gamarte ta Monjolose "zone occupée"
- Monjolose deja "zone occupée" eh?
- Ba, ba, ordian ere hortan bazuxun xikana, badakixu eiharekilan ta're ta ogia egiteko, irinain egiteko ta.
- Eta eiherekilan ez zuxun problemarik ukan "zone occupée"-n?
- Ba, nik ez nuxu ohit nola egiten zuten, gure etxerat jiten zuxun eta Madalenatik eta zerak eh ba Puxulu jiten zuxun, ordian hura izigarri maite ginixin eta karrosa biz... bi edo lau erroteko karrosa batian ta bi zaldi kuxkulekilan ta badakixu animaleko xintxilekilan ta hak ekartzen zixin balirinak, zaku irinak.
- Ah, soixu
- Ba.
- Ah to!
- Ze pollita, eh?

- Ba!
- Ta ordian hola egiten gintxin, ogiak etxen egiten.

9. Xuriketa

- **Erref**: GAM-001/012
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:08:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropak ontzi baten barnean sartzen ziren, gainetik errautsa botatzen zen eta ur egosia ere bai, jantziok zuritu ahal izateko.

Transkripzioa
- Soixu, eta xuriketa aipatu duxu.
- Eta xuriketak ere, bo lehenago ez zuxun eta orai bezala xuritzeko mekanikarik. Ordian nik ikusi dixit auzoan, gure etxen ez, gure etxen "lessiveuse"-aikilan. Auzoan ikusi dixit kuela, zurezko eta untzi bat, orai barrika, barrika bezala, orai ba mahatsain...
- Luzia.
- Luze bat, sobera gora gabe metra gorako bat bezala eta hartan ezartzen zixien xuriketak, eta gero hautsa, eta zakutan hautsa, eta gero hura, eta emeki-emeki puxka bat epela ezarri, gero beruago, beruago, beruago, hura erakin artio.
- Barnian.
- Barnian eta hura haikilan eta zera eta arrozatzen zuxun eta xuriketak, ta gero hak emeki-emeki ta berotziaikilan eta zikina jauzten zuxun eta gero joaiten zitxun erreka bazterrerat eta bokata latsatzera.
- Eta hautsa edo ezartzen zakoxun?
- Hautsa ba, hautsa, hautsa ezartzen zuxun eta hur berua ezarri aitzin eh!
- Ados.
- Ta hur, ta hautsak baitu potazak eta.
- Ba.
- Eta ez dakixut ikusi edo entsatu duxunez eta hautsa hurian trenpan ezarri eta eskiak eta diximeldurik eta ezartzen txi, horrek badixi eta zera, indarra.
- Ez nuxu entseatu ez.
- Ah, ez duxu entseatu? Ah bena harek eta harroarazten zitxin zikinak.
- Hori supazterreko hautsa.
- Supazterreko hautsa ba, supazterreko hautsak begiratzen zitxun hola.
- Ez zuxun deus ere sobratzen, eh?
- non, non, ez zuxun deus ere galtzen, eh!
- Ez, ez, hori batere, eh!
- Ez, ez, batere, batere, batere!

10. "Lessiveuse"-a-ren erabilerak

- **Erref**: GAM-001/013
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:08:49. **Bukatu**: 00:10:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
"Lessiveuse"-a erabiltzen zuten, arropak garbitokian garbitu aurretik zikinik handienak kentzeko.

Transkripzioa
- Eta gero berriz, gure etxen aldiz, baginixin aska bat, gu xantza bagintxun gure etxen, askak bazitxun bestenaz beste batzu errekarat joaiten zitxun, aska hartan eta mihiseak eta trenpatzen gintxin, gero xabonatzen eta "lessiveuse"-ian ezartzen, ta "lessiveuse"-a hek oraiko [...] bezala zitxu, larguago ta goruago, eta gero hek bazixien erdian "arrosoir" bat, lehen zola eta zola batian bazuxun, bospasei zentimetra goroxagot [...] bat bezala, baizxin zola eta "lessiveuse"-ain zer bat artian, ta gero hak bazixin tuiu bat petik goiti, ta "arrosoir"-a kaskoan. Ta ordian han ezartzen xindien eta xuriketak xabonatuik, eta gero ezartzen xindien eta "lessive"-a, "la lessive de Saint Marc" edo gintxin usaia, haikilan ezarri.
- Ah, marka ona bada.
- Ta gero pian suia egiten, eta gero suia berotziaikilan hur hura, eta orai hurez betetzen gintxin eta gero eta xuriketa hek, bestenez eta erreko zitxun, hurez bethatzen eta gero hur hura berotziaikilan, burrustan eta gañeko "arrosoir"-etik hur berua jiten zuxun, hur erakina, hak arrozatzen zitxin xuriketak eta hura ararazten ginixin oren bat bezala egosten...
- Ba.
- Ta hori bezperan egosaraziko gintxin eta gero biharamun artio pausatzera utziko, ta biharamunian latsatuko.
- Ah, soizu, ta gero latsatzen... errekan, ez?
- Ba eta batzuk errekan, nik gure etxen bagintxin aska, han egiten ginxin eta harrien gañian zafla ta brozatu ta badakixu ta gero hur hura bera ez galtzeko hartan eta zera trenpatzen zitxun gizonen pantalon eta ator eta...
- Trenpatu deitzen duzu...
- Hurian ezarri.
- Ah, ados.
- Hurian trenpatu han zikinak eta hant zizten ta gero hek ere broza ta xuritu ta kanpoan hedatu.

11. Garbitokiak

- **Erref**: GAM-001/014
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:10:37. **Bukatu**: 00:11:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Auzo bakoitzean bazen bat, baina jendeak banaka joaten ziren garbiketa lanetara.

Transkripzioa
- Gero bazena hemen herrietan hola latsarririk denendako, edo bakotxak bazixin bere etxean?
- Ba hemen gure kartierrian bakotxak guhaurena baginixin, bena Gamarten

eta elizatian bazuxun gune bat hur bazterrian ere jiten zuxun eta familia bat beno gehiago jiten zitxun harat eta boketen laxatzera, ba.
- Eta zonbat kontu eta zonbat eh...
- Ah non, jendiak bederazka joaiten zitxun, ez baitzen gisa hartako eta zerarik.
- Bederazka.
- Bederazka joaiten zitxun egiten ba.
- Untsa duxu.

12. Zerriaren aprobetxamendua

- **Erref**: GAM-001/015
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:11:11. **Bukatu**: 00:11:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Noiz hiltzen zen, tripakiak errekan garbitzen ziren, dena aprobetxatzen zen.

Transkripzioa
- Gero haragia ta altxatzeko, eh kontserbatzeko?
- Haragiain kontserbatzeko, ordian eta zera, xerriak hiltzen gintxin, xerria, gure etxen egoiten zuxun xerri andana bat ere hiltzen zuxun.
- Eta noiz?
- Ta hori abenduan, abendua. Abenduan hiltzen zitxun eta ordian xerriak hil eta tripakia errekan ikuzten zuxun, zeren eta ez zuxun yeus ere galtzen ordian, herziak eta denak biltzen zitxun odolaik tripotain eta egiteko, ta gero lukainkak eta denak. Ez zuxun eta xerriain pitsik-pitsik galtzen.
- Deus ere.
- Begiratzen zuxun eta pixa estria bera ere.
- Hori ere bai.
- Hori ere begiratzen zuxun, eta hartan... xaude, ze ezartzen zuten? zer egiten gindien hartan ere.

13. Xerri-gurina sendagaitarako

- **Erref**: GAM-001/016
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:11:56. **Bukatu**: 00:12:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Kolpeak sendatzeko balio zuen.

Transkripzioa
- Eta gero begiratzen ginixin eta urin gazgabia ere, orai herziak eta badakixu berextian baduxu gantza, eta ordian gantza hartarik zuri puska begiratzen zuxun, eta gero ordian, eta noizbait kolpatze edo, edo bestenaz badakixu iratze kozkorra sartze edo, zuri hartarik gañen ezarri eta hak

emeki-emeki hant eta huriatzen zixin eta aterarazten eta zera.
- Ah bai, eh? Soizu eta ze gauza kuriosa hori.

14. "Furoncle" delako sendatzeko

- **Erref**: GAM-001/018
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:12:52. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Ogia esnetan busti eta konpresa bezalakoak eginik, "furoncle"-aren gainean hauek jarri eta mina sendatzen zuten.

Transkripzioa
- Baduxu izen bat, "les furoncles", frantsesez "furoncles" tuxu, eskuaraz jinen ziadaxu ba gogorat. Ta hain, haindako berriz, eta egiten zuxun eta ogia esnian trenpatu eta zera kon.. zer bat bezala, konpreza bezala, eta hura han barnian, gañean ezartzen eta hak huntarazten zauxun eta xure eta minak.
- To, hori zera egiteko.

15. Sendabelarrak

- **Erref**: GAM-001/019
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:13:22. **Bukatu**: 00:14:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Berak ez ditu erabili izan baina bazen auzoan emakume bat ondo ezagutzen zituena. Erabilera ugari zituzten.

Transkripzioa
- Eta gero hola minen soñatzeko edo eritasunen bat baldin bazen edo, eta bazinutena ziek usaiarik ziek belarren eta biltzeko.
- Ba, belarren, tisanegiliak eta ere egiten zitxun, bazuxun usu eta belarrak. Tilura're iten zuxun. Ta gero beste, beste gauza franko're.
- Eta beste belarrik ezagutzen duzia?
- Bon, non, nik eta hemen auzo bat ukan dixit eta ikeragarriko èna dixit.
- Ba.
- Eta hemen Ahatsan eh, auzoa eta hak belarrak ezagutzen zitxin eta biltzen zitxin.
- Xahar hori...
- Ba, adina ziina.
- Ah bai eh?
- Ba, ordian, usu-belarra, hura, tillura, eta gero bon, eta xarpota're marranta delarik, eztula delarik, inalazioniak egin edo bestenez haikilan eta zera, tisanak egin.
- Eta harek bazakixin ordian, eh?

16. "Ventouse"-ak sendagaitzat

- **Erref**: GAM-001/020
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:14:06. **Bukatu**: 00:15:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Ziri baten muturrean kotoia ezarri, alkolez busti, su eman eta baso batean sartzen zen. basoa bizkarrean behin eta berriz pausatuz bronkitisak sendatzen ziren.

Transkripzioa
- Eta gero gu haurrak ginelarik, eritzen ginelarik ez zuxun orai bezala medikurat joaiten. Ordian ezartzen zitxun "ventouse"-ak.
- Zer zen?
- "Ventouse"-a zuxun baso batzu, ordian jendia eta hauspez ezartzen zuxun eta berriz eta holako xiri baten muturrian kotoiña estekatia zuxun, hura alkoholan bustia eta gero hari suia ezartzen zintxien eta basoak, basoain barnia haikilan berotzen eta jendeen bizkarrain gaiñian finkatzen zintxien horiek.
- A bai?
- Ta hura lotzen zuxun ta xure eta larria goiti ateratzen zuxun. Ta badakixu eta ordian eta azkar eta hartia xinelarik eta gorri franko eta viola aire eta hola, ta ba ta gero hura atxikitzen xindien eta ez baitakit zonbat denbora, orai ahatzea dixit eta gero hu... gero hura kentzen xindin pollikiño airea sarraraziz kentzen xintien ta xure brontxitak eta hola pasatzen zitxun.
- Bai eh?
- Ba. Hori eta...
- Holako gauza kuriosa etxin nihoiz ere...
- Ah ez duxu behin ere intzun?

17. Kataplasmak

- **Erref**: GAM-001/021
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:15:04. **Bukatu**: 00:15:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
"Farine de laing" delakoa uretan hanpatu eta oihal batean hedatu ondoan lepoan ezarrita, bularreko gaitzentzat ona zen.

Transkripzioa
- Eta kataplasmak ere ba. Hura berriz eta "la farine de laing", eta ez baitakit eskuaraz "le laing"-endako zer erraiten ahal den. Haria, haria...
- Ilea edo?
- Ba eta "le laing" baduxu pudra bat baduxu orai eta ogian ta're ezar... ogia're egiten duxu "à la farine de laing", kabaleer ere emaiten duxu jatera hartarik.
- Ados.
- Ordian, hura're hurian egiten xindien eta lodiarazten eta gero oihal baten gañian eta hedatzen xindien eta gero batzutan eta oraino eta azkarrago izaiteko [bustarda] pudra puxka bat farmazian harrapatzen xindien eta hura ezartzen xindien papoan, ta haikilan, haikilan xure bularrak laxarazten xintien.
- Soixu.
- Ba.
- Hori ere ba.
- Eta gero ezartzen...
- Zintzurraindako, ba!
- Ba, holako gatz berorik eta baliatzen zinuten?
- Lepoan, lepoan zera eta ze egiten gindien... ordian jan... edaten ginxin franko esnia eztiaikilan.
- Ah!

18. Ron-aren erabilerak sendagai bezala

- **Erref**: GAM-001/022
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:15:47. **Bukatu**: 00:16:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Eztarriko gaitzen kontrakoa zen, eta ura, olia eta azukreaz nahasturik gorputzeko zizareentzat ere bai.

Transkripzioa
- Ba eta esnia eztiaikilan, gero eta roma xortaño bat ere. Gero haurrak ginelarik zizariendako're. Zizarientzako berriz, ezartzen hura zukraturik, olio puxka bat eta roma.
- Roma?
- Roma ba.

- Zer da hori?
- Alkohola. "le rom".
- Ah, roma ba bistan dena ba.
- Ba eta hartarik edan eta gero hura edaten xixariendako.
- Ba, hori entzuna badixit ba, alkohola edaten zela...
- Ba, ba ta hura, zukria eta olioa eta romaikilan egina.
- Hori sendatzeko.

19. Gaixorik egon ondoren indartzeko sendagaiak

- **Erref**: GAM-001/023
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:16:39. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Arrautza gorringoa azukrea eta esnearekin jaten zen.

Transkripzioa
- Eta gero azkartzeko aldiz, jendia flako, badakixu eta eri egon eta hola azkartzeko, ordian berriz egiten zuxun arroltze gorringoa zukriaikilan eta esniaikilan.
- Soixu.
- Ta hura zera ta hararik edaten.
- Ta hola azkartzeko.
- Azkartzeko hori ibiltzen zuxun.
- Hori interesgarri duxu, eh?
- Ba.
- Pollita hori ere.

20. Ukenduak

- **Erref**: GAM-001/024
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Lakarrako seroren (mojek) egiten zuten bat erredurak sendatzeko balio zuena

Transkripzioa
- Ta gero ukendiak eta pomadak eta hola egiten zintien etxen edo.
- Pomadak, e be, nik ikusi dixit ene ahizpa etxen, orai etxen den hori, haurra zelarik [potregabeki] erori zuxun gasna egin eta, zenbera egiten baitzen, eta bertza hantik atera eta gero haurra ez dakixut batere nola gibelkatu zuxun eta haren barnerat erori eta gibel guzia egosi zixin. Eta ordian, Lakarran baitziren serorak, hak egin zixin eta lehenik gisia pausa... eta hurian trenpan ezarri pausatzera utzi eta hain gaiñera... gaiñ-gaiñean zen hur hura eta olioaikilan pomada bat bezala. Ta haikilan zauriak eta

pasa... sendatu zitxin.
- Hori ere ba.
- Ba.
- Ah to!

21. Karearen erabilerak

- **Erref**: GAM-001/025
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:
Berak ez du kare laberik ezagutu baina auzoan baziren. Alorrarentzat edota etxeak zuritzeko erabiltzen zen karea. Azken langintza honetarako, ihi landarez egindako sorta bat erabiltzen zen karea egiteko.

Transkripzioa
- Eta gisia etxen egiten ezagutu duzu zuk?
- Etxen egiten etxit ikusi.
- Hori ere...
- Ba bena hemen, hemen eta, hemen ene ustez, azkenik, ni Gamarten nintzlarik, azkenik, eta Erramun eta Negeluain etxen eginik izana den gisia.

- Ah bai, eh?
- Ba.
- Labia...
- Gisu labi bazixien.Bestez, bazitxun etxe guzietan gisu labiak, eh? Orai horko harri horiek denak, gisu egiteko, mendi hortako harri horiek, denak gisu egiteko harriak txu.
- Eta gero hasi zinten eta erosten.
- Gero hasi erosten.
- Eta zendako erabiltzen zuxun gisia?
- Alorrendako. Hartako, orai, orai ez duxu gehiago ogia egiten bena ogiaindako eta gisuari eta lurra hura huna duxu.
- Ah bai eh?
- eta lurrain, alorrain harrotzeko gisia huna duxu.
- Eta hormen eta xuritzeko, hortako ere bai?
- Etxea, etxeak eta gisiaikin xuritzen zitxun.
- Eta etxe eta ordian errain dauxut ba! Gure aitatxik eta ez zixin eta gisokoa, gisopa, badakixu? Gisopa erraiten zixin, gero ez dakixut nola den hala den izena, eta etxen xuritzeko egiten zixin eta zera, ihia, ihia badakixu zer den?
- Ia errazu!
- Ihia eta halako belar bat bezala da, hur eta bazterretan jagiten dena, logitu aire duxu, eta ba, eta ordian aitatxik egiten zixin eta [...] zixin lehenik eta su batetan itziak xehe-xehia landatiak, eta haikilan eta trat ttarra-ttarra-ttarra ihi mutur guziak eta egiten zitxin ta harroturik ezartzen. Eta gero hek estekatzen zitxin.
-Ba.
- Eta ingurian plantan pikatzen, dena plantan pika eta hura gisüa, gisu hurian egin eta murru-paretak eta harekilan xuritzen zitxun.
- Orduan margo edo pintzel horiekin bena naturala.

- Ah, naturala.
- Ordian ihia horretarako ere...
- Ba ihia ere hartan paldiatzen gintxin.

22. Erratzak egiteko erabiltzen zirenak

- **Erref**: GAM-001/026
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Ilarra eta marmaroa erabiltzen zituzten.

Transkripzioa
- Eta gero, eta zera, eta ilaarria aldiz, eta "la brouillère", ilaarria hori berriz biltzen zuxun, haikilan eta egiten zitxun izuzkiak, izuzkia edo erratza edo...
- izuzkia?
- "oui".
- Ah, ez nixin nihoiz entzun hori.
- Ez duxu behin ere intzun?
-Ze pollita izuzkia. Hori ilaar, ilaar...
- Ila... ilaarriaikilan, hura mendian... hura mendian biltzen zuxun.
- Ba.
- Eta gero berriz, sukaldeko ta hor finago izaiteko, etxean egiten zuxun, ereiten marmaroa.
- Ah, hori zer da?
- Marmaroa, hura eta artoa bezala, hostoa... artoa beno hosto finagoa, hak ekartzen zixin zer... adar luze batzu, gero hek ere, hura ere izuzki egiteko. Hura're etxen eta ereiten zuxun eta etxen egiten zitxun denak, ez zuxun yeus ere erosten.
- Bazuxun aski lan lehenago, ez zuxun lan presatia.
- "non" eta nasai, denak... denak etxeko gauzekilan egiten zitxun.

23. Argizaria egurra argitzeko

- **Erref**: GAM-001/027
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:22:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Egosi egiten zen, zintzilik ezarri eta lehortu, ondoren gelak argitzeko erabiltzen zen. Erratzaren antzeko tresna bat herabiltzen zen argizaria hedatzeko.

Transkripzioa
- Eta errain dauxut zera're, etxen egiten zuxun lehengo, eztia biltzen zuxun etxean, eztia.
- Ba.

- Erlik ibiltzen zitxun, eztia egiten zuxun, eta eztia tinkatu ta ezko hura're egosarazten zuxun hurian, egosaraz eta, zaku batzutan eta dilindan ezar ta hura pasatzen zuxun, bi hariekilan untsa tinkatuz, ta gero ezko hura hurain gaiñian ezarri, txabal-txabala txukatzen zuxun, eta gero hura biltzen gintxin, eta hurtarazten eta gero bola batzutan hur txorta bat ezar ta hartan korda ttipiño batzuekilan ezartzen ta gero han eta gogortarazten. Eta gero ezko hura baliatzen ginixin ganbarak eta zolak eta denak zilatzen zitxun eta ezkoaekilan.
- Ezkoaekilan.
- Ba, eta ezkoain hedatzeko ere bazuxun makil espresa bat eta beherian eta eh badakixu izuzki giderra bezala, eta gero beherian bazuxun bi plaketa hola, eta gero plaketa baño hola zabaltzen zuxun, ezkoa hain artian sartzen, eta gero hura hola mar... hala ibiliz eta haikilan eta egiten xindien eta ezkoa hedatzen eta barnetan.
- Eta horrek baliatzen...
- Hori argitzeko bazt.... barnia garbitzeko, argitzeko.
- Ah, ados. Eta argitzeko erabitzen zinutena lino, liñu...
- Ba gero broza, gero brozaikilan egiten gintxin. Gero ankoztika're etxen egiten ginxin. "essence de térébenthine" puxiño bat eta "essence de térébenthine" erosten zuxun, eta gero etxean ezkoa hurtarazten, "essence de térébenthine"-aikilan nahasten ta haikilan ankoztikatzen. Ba!
- Hori hola argitzeko eta...
- Ba eta

24. Xaboia ere etxean egiten zen

- **Erref**: GAM-001/028
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:22:36. **Bukatu**: 00:23:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Etxean egiten zen. Gurina eta errautsa nahasi, lehortu eta gero pusketan banatzen zen.

Transkripzioa
- Eta xabuna're ikusi dixit etxen egiten.
- Ah bai eh?
- Ba, xabunaindako aldiz, urin eta urinak eta baduxu gaua gizenak eta gero etxeetan, eta gero ez dixit erraiten ahal errautza ze potaza edo ze ezartzen zuten, eta hura horiek elgarrekilan, erakinarazten edo ze egiten zuten, eta aska batzutan eta ezartzen zutela, ta gero xukatu zelarik eta pikatzen eta mokor batzu egiten.
- Hori hola...
- gerla denboran ere ikusi dixit xabuna etxen egiten.

25. Etxea argitzeko baliabideak

- **Erref**: GAM-001/030
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:23:35. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Lakarrako serorek egiten zituzten zirioak erabiltzen zituzten, petroleoa ere bai eta baita "carbure" deitu aparailu batzuekin ere.

Transkripzioa
- eta berriz Lakarran bazuxun eta emazte bat, andere bat, biga're ari izan dira, eta hek egiten zuten eta ezkoa xirioa eta elizarako ezko za... ezkoain egiten eta.
- Bai.
- Hek egiten zuten Lakarran berian eta egiten zuten.
- Hori bazuxun usaia hori elizarat joaiteko ezkoaikilan eta...
- Ba ta gero nik eta haurra nintzalarik eta ez zuxun elektrikarik gure etxean. Ordian gure etxen eta, argia xirioaikilan eta egiten zuxun, petrolaikilan egiten zuxun eta karburaikilan.
- Zer duxu hori?
- Ta karbura hori zuxun, eta ez baitakit eta nik orai eta aipatzen baitute eta "schiste" edo...
- Ba
- Ari nuxu holako zerbait zitakeen zeren eta holako eta lur mokor bat bezala zuxun, ordian eta untzi batetn zuxun argiain eigteko apareilla bi partetan zuxun, ordian pian ezartzen zuxun eta pudra hartarik, eta gero gaiñeko partian ezartzen zuxun hura.
- Ba!
- Eta gero errobinet batetarik koteraka hura partiarazten zuxun eta hurra harri hari kuntra egiten zelarik, gaza jauzten zuxun. Eta gero bazuxun eta beka zer bat, beka ttipi bat, eta hartarik orai eta gaza zera duten bezala ttipi bat, gero hartarik eta argia ateratzen zuxun eta gero hari suia emaiten gintxin eta harek suia egiten zixin.
- Soizu, hori ere ba. Eta elektrikarik batere gabe.
- "Non, non", guk Gamarten eta berrogoita zortzian ukana dugu elektrika, "en quarante-huit".

26. Aitona istorio kontalari

- **Erref**: GAM-001/031
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Iluntzetan supazterrean aritzen ziren istorio kontatzen. Aitatxi zen horretan gogotik aritzen zena eta lamien edota sorginen istorioak ziren horietako batzuk.

Transkripzioa
- Eta doaikai goiz joanen zinten oha... ohera.
- Oherat ere ba eta supazterrian egoiten gintxun han eta badakixu, ordian eta denbora hetan be denak supazterrian berotzen eta ixtorio kundan eta

ordian hemengo berriak frango ginazkitxun, aitatxi ezterenzubiarra gintxin, ixtorioa frango kundatzen ziena.
- Aitatxi nondarra?
- Ezterentzubiko.
- Ah, Ezterenzubiko, ta biziki ixtorio kundazalia ta.
- Orroitzen xira?
- Ah ba, ta nola, ba, ba, ba!
- Ia konda zaxu bakarren bat.
- Ba, ze nahi duxu konda dezadan.
- Ixtorioren bat orroitzen xira? Ixtorio polliten bat
- Ez baitakit ze kundatzen ahal nukeen pollitik hola.
- Ainitz ixtorio...
- Ba, hak ainitz baziakixun, anitz kundatzen zitxin ta haurrian hari beha egoiten gintxun.
- Ta zerren gaiñeko ixtorioak ziren?
- Ba lekuko ixtorio ta lehengo eta zeren, sorgin ixtorio ta lamin ixtorio ta...
- Hoitarik ba, eh?
- Ba, ba, ba.
- Laminik bazen?
- Basanderia ta, ba ta sinisten zixin, eta badakixu? Basandere horien eta ixtorioak eta're ta.
- Eta sorgin kondu eta biltzen zirela eta hola?
- Ba, ba, ba, ba, ba.
- Biltzen zirela eta dantz... dantza egiten eta hola.
- Ta zera're, andere batzu're ta zera ta hortza, zeraikilan eta, orraze eta urrezkoekilan eta zera egiten eta.

27. Salbatoreko ganderailuaren istorioa

- **Erref**: GAM-001/032
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:27:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Salbatoreko ganderailua Mendibeko herrira jaitsi nahi zuten baina puntu batetik behera idiek ezin zuten gehiago tiratu ganderailuak Salbatoren egon behar zuelako.

Transkripzioa
- Gero beste gauza bat ere baduxu, ixtorioa're, gero ez dixit nik biziki sinesten hori eh! eta orai orai joan eta Salbatoreko eta ganderailua so... airatuko duxu. Salbatoren baduxu ganderailu bat.
- Errazu, errazu ba.
- Eta ordian ganderailu hura nahi zixien Mendibeko elizarat beheiti jautsi, -Ba.
- Eta hura beheiti jaustera etseatzen zitxun bena gero gune batetarik beheiti ez zixin... ez duxu arribatu, eta idi pareak ez zixin tiratzen ahal.
- Ez eh?
- Ez.
- Eta ez zixien beraz ukan batere.
- Ez, Salbatoren behar zixin egon. Eta gero baduxu... Salbatore baita

kapera bat; ez dakixut izana xiren.
- Ba.
- Ordian hain gaiñekalde hartan baduxu kapera ttipiño bat.
- Ba.
- Ta han baduxu eta zer bat, saindu baten ba zer ttipi bat, portreta bat.

28. Bithiriñeko istorioa

- **Erref**: GAM-002/001
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
neska bat soroan ahaztua zuren aitzurrutsaren bila joan zen eta norbaitek "deabruak eramango al hau" esan eta hala egin zuen deabruak. San Salbatore otoiztu zuen eta deabruak hantxen utzi zuen.

Transkripzioa
- Orduan erran duzu ganderailuaina.
- Ganderailliaina eta gero berriz, eta Salbatoren. ordian eta ze errain dut Bithiñan, eta arto biltzen ari izan zitxun eta ego... etxe batetan, eta gero arto xuritzen hasi zirelarik eta haitzurrutsa eta badakixu eta artoen tiratzeko eta zer hura alorrean ahatzea zixien.
- Ba.
- Eta ordian egin zixien eta norbaitek behar ziela haren txeka joan.
- Bai.
- Eta gero, ordian eta nehok ere ez joan nahi eta denak eta neska bat eta ba hura joain zela. Neska hura joan zuxun harat eta norbaitek erran zixin eta hantik partitu zelarik, eta "debriak eremain aal hu", eta ordian debriak neska hura har eta ekarri zixien ta gero Salbatoren pasatzian, Salbatore eta otoiztu zixin ta ordian debriak han finkatu.
- Soizu, beraz Salbatore horrek badixi...
- Ba, ixtorio; ixotorio, ixtorio hori bazuxun.

29. Telebistaren kaltea

- **Erref**: GAM-002/003
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:01:34. **Bukatu**: 00:02:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:
Telebistak izugarrizko kaltea ekarri du istorioen transmisioan eta familiako harremanetan

Transkripzioa
- Gero telebista jin zelarik horiek guziak fini. - Gero fini eta etxen eleka artzia finitu. - Ba, telebistak hori dena hautsi. -Telebistak denak moztu tu. Ordian nik errain dut, gure etxen televizionia [...] berantian ezarria dugu, hiruetan hogoita zazpian. - Ba. - Eta hemen eta ez baitzen eta zera, telebista ez gindien ezartzen ahal. Gero ezarri zuten antena bat hor gaiñ hortan. - Ba. - Irigaialden eta ordian arribatu ginen egitera, benan haatik jateko tenoretan telebista beti hila, eh! - Beti. - Beti. - Ba. - Ba lehenago, ta ba orai ere. - Behar duxu ikasi... - Ba! - Tele eta mahaian jartzen girelarik, nik laket... guk laket dugu mahaian elgarrekilan mintza edo... eta orai ni bakarrik niz etxean benan nihaurendako're ez dut eguerditan telebista piztuko. Nik janen dut, goxoki janen dut eta kanpoari so egonen niz edo leihok zabaldurik eta xorien kantu beha edo ixtorio. - Edo leitu. - Ez, jateko denboran jan. - Jateko denboran ba... - Eta gero hola, zerak lanak egin eta gero telebistari behatuko dut, ta leitzen ariko ta hola.

30. Lehengo eguberriak

- **Erref**: GAM-002/004
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Gauerdiko meza entzuten zuten, eguberritako kantak kantatzen zituzten, ohera baino lehen ogia txokolatearekin jaten, ondoren zapatak ezartzen eta hurrengo egunean Jesus haurrak opariak ekartzen zituen.

Transkripzioa
- Eta bon lehenago ibili gira erraiten eguberri...
- Eguberri eta hoitan gu haurrak ginelarik, eta eguberri bon, alegerak ziren zeren eta guJesus haurra eta badakizu, sinestia bazen izigarri, Jesus haurrak gauzak ekartzen ziela ta dena.
- Jesus haurrak ekartzen zien.
- Ba ta gauzak eta pentsa ordian bon, sekulako otoitzak egiten gindien eta ez gindien pitsik ukaiten galdegiten ginielarik, ez baitzen ukaiten ahal ere.
- Hor duxu, hor duxu!
- Ta ordian denek zapatak ezartzen gintxin han eta gero eguberritan eta atzetan afaiten gintxun, ta gero afal eta joaiten gintxun Gamartetik Lakarrarat denak gazte guziak elgar besoz-beso kantuz, eguberriko kantutan, han gauerdiko meza intzun eta berriz eta gure etxetik Lakarrako elizarat baxun hiru kilometra; ta ordian gauerdiko mezatik landa hal-hala Jiten gintxun eta gero etxera jin eta gero xokoleta; ordian xokoleta hun bat egiten zuxun
- Ah bon.
- Xokoleta ogi gorritiaikilan, ta burra, hura burraturik eta hura jaten gindixin.
- Ados.
- Eta gero oheratekoan, zapatak ezartzen eta gero pentsa biharamunian jeikitzen gintxun airez aire, ordian ardurenian eta iranja bat eta berriz eta Jesus haurra xokolatezkoa eta bizpahiruna eta "couleur", "crayon couleur"-ak, ta gero baginixin kusi batzu eta Izpuran eta hek baizuten gehiago

gauza, ordian hen eta hek liburiak eta berri-berriak baitzuzten, hen liburu batzu eta ukaiten gintxien, gu [okastatiak] gintxun eh!
- Bon, bon, bon, eta orroitzen zirea zer kantatzen zen ordian, zer kantu ziren eta?
- Eh eguberriko, oraiko kantu hok berak. Ah ba, ba, ba.
- Beraz horiek kontserbatu txu.
- Horiek kontserbatu txu ba, ba, ba, eguberriko kantiak llehenago, beti berak txu.
- Eta gauerdiko meza.
- Ba, ba beti gauerdiko meza gauerditan ba, ilunpeka joaiten gintxun.
- Eta ordian eta ze presenta, ze opari ekartzen zauzien Jesus haurrak, ze presenta, ze ukaiten zinuten eguberriz?
- Ba erran dauxut iranja.
- Iranja?
- Iranja eta Jesus haurra xokoletezkoa bere xapaten barnian eta gero eta bizpahiru eta "crayon de couleur" eta badakixu kolorezko zerak, lapitz horietarik eta gero liburu bat edo beste.
- Ta kontent.
- Ta gu kontent ginen, Jesus haurrak ekarri baitzien.
- Beraz ziek ez zinuten erregerik edo Olentzerorik edo ez zen hola.
- Non, non, non. Olentzero, Olentzero Jesus haurra zen. Eta Olentzero're orai da eh! Zonbait urthe hotan hasia bakarrik.
- Hemen lehenago ez da holakorik izan.
- Gero, gero "Papa Noël" jin zen, ta ba.

31. Santibate

- **Erref**: GAM-002/005
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:05:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Gazteak mozorrotu eta kantuz ibiltzen ziren etxez etxe. Gero bildutakoarekin ostatuan afaria egiten zuten

Transkripzioa
- Eta gero Santibate ere bazen hemen, ez?
- Ba ihauteriaz eta. Ba egiten zitxun eta gaztiak eta're beztitzen eta gero hek etxeetan ibiltzen zitxun ta gero xerri puska batzu ta hola, ta gero ostatutan jaten zitxien.
- Ta kantatu ere bai, ez?
- Ba kantuz artzen zitxun.
- Kantak orai bon, bertsiak eta hola, ez?
- Ba, ba, ba.

32. Kongregazioak

- **Erref**: GAM-002/006
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:05:36. **Bukatu**: 00:06:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:
Kongregazioetan sartuak ziren neskek ezin zuten dantzarik egin eta horma gainean besteei so egoten ziren.

Transkripzioa
- Eta gero ihauterietan hemen egiten zena zerbait, dantzarik edo...
- Ya, gure denboran oi ama, gure denboran, oraino, oraino, nik xantza bat ukan dixit eta ez bainute kongregazionian sarrarazi.
- Ah bai?
- Ene eta ene, nik, nik eta xantza ukan dut, ez niz kontre... kongregazionen sartu benan ene aitzinagokoak urte... bi urte lehenago komunionia egina zutenak, hek eta egiten ziren eta ofizio zer bat egiten zuten eta ze errain dut, mantelin xuriak ta gero eta xingola bluia eta Andre Mariain eta medallaikilan ta gero hek eta elizan ere hek zitxun kantariak eta gero hek ez zixin yantzan ari izan behar.
- Gaizoak.
- Ta ordian gaixoak neskatoak plazan eta batzuk yantzak artzen zitxun eta yantzn artzen ez ziren horiek urrun jarri bester so.
- Ah gaixoak, eta ziek dantza egiten
- Hala, denbora hola zuxun.

33. Lehengo festak

- **Erref**: GAM-002/007
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:06:36. **Bukatu**: 00:09:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:
Lehengo festetan akordeoia zen nagusi. Igande arratsaldetan Lakarran "Tourne-disque"-arekin ere aritzen ziren. Oinez mugitzen ziren, edo bizikletaz, mutilen laguntzarekin.

Transkripzioa
- Ta gero degizatzen zen jendia? Edo ordian ez zen holakorik.
- Non, non, non, ez zuxunakorik. Ta gero, gero berriz, gu hasi gintxun yantzan ta're ilun eta ilun zeiña joitian, eh be etxerat sartu behar ginixin lasterka, ah ba, ba, ba, fini fini ez zen eta ez zen eta gau eta blarik ez fitsik, eh! Ah non, non, non.
- Ez orai bezala goizeko zortzietan.
- Ez, ez, ez eta etxetik parti goizeko oren batian ta bestarat.
- Ah ba, hori duxu! Eta zer egoiten zen, ze musika egoiten zen?
- Akordeona.
- Akordeona soilik?
- Ah ba, ba, ba. Ba eta ederra duxu, nik beti maite ukan dixit. Akordeonaikilan eta guk hemen ukan ginixin eta errain dauxut, Frantxoa, donaixtiarra zuxun Frantxoa, hain denboran eta gero Beñat Galtxetaburu.
- Eta gero akordeoina bera bakarrik, ez zena panderorik edo...
- Non, non, non, ez zuxun, ez zuxun, non, non, gero jin txu horiek guziak.

- Horiek ez tuxie ezagutu hemen.
- Gure, gure gaztian ez zuxun holakorik egiten.
- Eta xirularik, ttun-ttunik, holakorik ez hemen.
- Ez.
- Hori gehiago Xiberoan.
- Hori gero ba, ta gero hemen ere hasi txu bena berantago.
- Ta xisturik edo gaitarik eta ez.
- Non, non, eta gero guk, haur, gaztiak ginelarik, haurrian eta bon eta ni esposatu artio're, eta igande guziz joaiten gintxun eta bezperetarat Lakarrarat, ta hantik landa seroretarat, eta gero seroretan baginixin eta "tourne-disque"-a bat neskatoak elgarrekilan yantzan artzen gintxun. Ba, dantzan eta kartetan eta...
- Hori igandetan.
- Igandetan. Ordian igande atsaldetan joaiten gintxun gogotik elizara, hola lakartar gaztiak eta gamartiarrak elgarretaratzen gintxun eta elgarrekilan jostatzen eta gero badakixu eta bide-herri guzia besoz beso artzen gintxin, ez zuxun oto bat pasatzen baldin bazen eta ez zuxun otorik eta're lehenago, non.
- Karroza eta...
- Eta norapait bestetarat joan nahi gindielarik eta ere, etxeetan bizikleta bat edo zuxun eta ordian eta lehenik bizikleta hartzen ziena hura zuxun bizikletan, bestiak "porteur bagage"-ian eta gero arrenyatzen gintxun muttikoekilan ta're, muttikoek ere bizikleten barran neskak jarririk eremaiten gintixien yantzan artzera.
- Ah bai, eh? Ah untsa hola eh!
- Horiek denak eta jostatzen gintxun.
- Ba.
- Ba.
- Hori duxu gauza sanoa.
- Sanoa ba.
- Ez orai bezala.

34. Baserriko lanak, festak eta auzoen arteko harremanak

- **Erref**: GAM-002/008
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:09:01. **Bukatu**: 00:10:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Baserria » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Aitzurreak egiten zirenean edota gari moztea, biltzea, eta jotzea, eta baita arto moztea eta zuritzea ere, festa handiak egiten ziren. Auzoen arteko harremana askoz ere indartsuagoak ziren.

Transkripzioa
- Non, non, non, ta gero lehenago bazuxun eta bo, erraiteko moldian, lanian eta're jendiak akitiak eta ixtorio benan bauxun lehenik eta orai martxoan, egiten zitxun mahasti eta mahasti eta aitzurreak. Ordian auzoak elgarretaratzen zitxun, besta egiten zuxun.
- Ba.
- Eta gero bazuxun, berriz eta ogi-epaitiak. Ogiak pikatzen zelarik, ordian

ogi-landen ingurian eta paketaka ogien ezartzen, ordian auzoa biltzen gintxun.
- Ta ordian...
- Ba ta gero ogia sartzen zuxun, eta sabaira, gero ogi-joitia egiten zuxun, ordian batusa eta behi ta idiekilan edo zaldi-mandoekilan tiratu ta etxez etxe ibiltzen gintxin ta jende guziak etxez etxe ibiltzen zitxun eta ogi-joiten.
- Ah eta hori besta pollita izain...
- Pesta pollita zuxun ordian e jendia goxatzen zuxun, gero berriz artoa biltzen zuxun eta gero arto-xuritziak egiten zitxun.
- Ba.
- Ta ordian atsetan arto-xuritzera joaiten gintxun auzo guziak lehenik gau batez etxe batetan, gero beste gau baten beste batetan, ordian han ere ixtorio kundan eta kantuz eta bazuxun, bazuxun auzoekilan ta're beste harreman bat badakixu?
- Ba, hori da.
- Beti, beti, beti auzoen, auzoen zera, [...]
- Familiako bezala, ez?
- Ba, ba, ba. Etxen zerbait baldin bazen falta edo joaiten gintxin auzorat.
- Lehemiziko gauza beti auzoa.
- Ba, ta errana bazuxun hobe zela eta jendakiekilan samur, auzoekilan samur beno.
- hori pollita duxu eh?
- Ba, lehenago beti auzoekilan untsa izaitia hobe zela.
- Zeren ta horiek baitziren etxe...
- Ba, ba, ba, ba.

35. Irutea

- **Erref**: GAM-002/009
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:10:41. **Bukatu**: 00:11:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Burnizko iltzeak zituzten tresnekin artilea kardatzen zuten. Lakarran baziren iruten aritzen zirenak ere, haría egiten.

Transkripzioa
- Eta gero hariaren egiteko, be jantziak eta haria badakizu.
- Ba.
- Hariaren egiteko, zer egiten zinutena hola ellia egosi eta gero orraztu eta holakorik egiten zinutena, ardi-ilia.
- Ah, ardi-ilia heben, ardi-iliak hek ere xuritzen eta matalazak egiten gintxin etxean. Nik hemen, nik hemen eta badixit matalaza zera, itze batzu txu eta doblaturik, itze larri batzu, eta gero han ezartzen xindien ilia, eta gero hortan eginez, ilia harrotzen zuxun.
- Eta nola deitzen zen hori?
- Xade, iruin, iruin eta "attends un peu, comment on appelle ça?".
- "Cardeuse"-a frantsesez.
- "Cardeuse"-a ba, iru, iru, irutia, irutia.
- Irutia?
- Ba, irutia. Irutzen atzia ba.Ta gero bazuxun eta guk Gamarten, bazuxun

Eliza-serora, hak egiten zixin berriz, eta holako xiri baten gaiñian ilia ezar eta iliak egiten zitxin.
- Halako gurpil bat bazen, halako errota bat.
- Ba, ba, errota gabe're egiten zixin, eskiekilan ere zera egin eta pil, ta gero denboran eta gizonendako egiten zitxun eta galtzak eta galtza-motzak.

36. Lehengo oinetakoak

- **Erref**: GAM-002/010
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:11:49. **Bukatu**: 00:13:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Eskalapoinak erabiltzen zituzten, abarkarik ez, espartinak bai, eta kloskak ere bai. Espartinagileak baziren Irisarrin eta Larribarren.

Transkripzioa
- Eskalapoiñak, ene aitatxik egiten zitxin eskalapoiñak, berak etxean.
- Bai eh, harek bazakien.
- Ba ta eskalapoin ttipiño batzu, ta gero ordian gizonek eskalapoiñak, eskalapoiñak eta lastoaikilan eta eihaurzten zitxien, ta gero galtza motzak jaunzten. Galtza-notza zuxun, badakixu, eta zango... zangosagarrak eta gibelezkilako haikilan eginak, gero zolan yeus ez zixien, hutsak.
- Ah, soixu.
- Botak geroztik jinak txu.
- Gero abarkak edo nola erraiten duxu hori? Hori oske horiek erabiltzen irenak lehenago? Larruzkoak eta?
- Abarkak?
- Abarkak zeindako erran nahi duxu hori?
- Hori, oskiak.
- Zapatak?
- Larruzkoak, hola gero lokarriekin...
- Ah, guk ez dixiu ibili.
- Holakorik ez duzie ibili.
- Guk ez dixiu.
- Espartinak gehio?
- Guk espartinak, espartinak ibili txiu, espartinak.
- Ados.
- hetarik ez dixiu, hetarik ez dixiu ibili. Ta gero guk kloskak ibili txiu, eskolan ta're kloskak. Ordian kloskak zitxun eta zapata goitiko batzu bena zola zura zuxun.
- Ados.
- Zola zura zuxun, ta kautziak eta han eta iltzatiak, kautzi o zeraikilan.
- Eta espartina egiten ibiltzen ze... zuxun hemen jendia?
- espartina, jendia espartinak ibiltzen gintxin.
- Eta egiten?
- Egiten non, Garazin ez dixit ezagutu, Irisarrin bazuxun esprtingilia. ta gero Larribarren, Donapaulerateko bide hortan bazuxun beste bat.
- Hemen ez.
- Ez, hemen berian ez nuxu orit.

37. Aste santua

- **Erref**: GAM-002/011
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:13:21. **Bukatu**: 00:14:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:
Aste santuan ezin zen lanik egin, otoitzerako garaia zen.

Transkripzioa
- Ta gero aste saindia. Aste saindia nola izaiten zen. Zer serietatia, ez?
- Oh, aste saindia heben eta ostegun saindutik eta bazko biharamun artio ez zuxun behi-uztartzen, eh?
- Deus.
- non, non, non, non.
- Jendia ostegun sainduz joain zuxun meza nagusirat, eta gero eta atsaldian etxen egoin zuxun denbora hartan ardurenian ostegun sainduz eta lur-sagarren ozin kentzen artzen gintxun, eta ostirale eta ibiakoitzaikilan ez zuxun eta kabalrik uztartzen zuxun eta...
- Lanik ez.
- Non.
- Otoitz egin.
- Otoitzeko zera zuxun, eta bisita zer egiten eta otoitzeko egunak txun.
- Ta konfesatu.
- Ta konfesatu ta kominiatu ta hola ba.

38. Donibane Garaziko feriak

- **Erref**: GAM-002/012
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:14:06. **Bukatu**: 00:16:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Feria mordoa egiten zen Donibane Garazin. Neskak kalean gora eta behera ibiltzen ziren mutilekin ligatzeko. Sekulako festak izaten ziren. Herri bakoitzetik autobusak gaztez bete-beteta etortzen ziren

Transkripzioa
- Eta gero...
- Gero eta bazuxun, gero gure denboran bazitxun, atzo eta erraiten nioxun eta neure alabari, "lehenago to feiran izain gintxun, eta lehengo denboran", ordian bazuxun eta feirak eta urtas feira...
- ah ba.
- Eta ihaut feira, pazko feira, eta mendekoste feira.
- Buf Garazin?
- Ta Garazin ba.
- Ta ordian eta gaztiak ordian ateratzen zitxun. Ta ordian, oraiko gazteek irri

egin lezakexie, denbora hartan ibiltzen gintxun neskatoak besoz beso Donibaneko karrikan goiti eta beheiti ta mutikoak ere hala ta gero balera joaiten gintxun, eta Garatenian.
- Zer feirak, ez?
- Ta gustatzen gintxun hala.
- Zerak erran zinadaxun, hor bizi dena zera Manex.
- Manes Lanatua.
- Lanatuak erran zadaxun nesakoak egoten ziren neskatoak zubiaren ondoan leku baten hor, egoten zirela, neskak egoten zirela hor eta zubian leku baten, gero mutikoak...
- Mutikoak ere han pasatzen eta haikilan "bonjour" egin eta bi ele egin eta ba, ba. Ba, ba, ba, ta gero bestez plazan goiti ta beheiti ta gero mutiko batzu han harri kontra ta hekilan eleka ta...
- Gauza pollitak ba.
- Gero ez zuxun oraiko... non, non kanbio da ba.
- Eta Garazin feida non egiten zuxun?
- Ba ordian eta bazarrak jiten zitxun orai bezala, ta gero gazteria jende, jendia ateratzen zuxun.
- Leku ainitzetatik ez Garazin?
- Ba, ba, ba, Garazin etxe... Herri guzietarik. Ordian nk errain dauxut eta Donaixtitik Jiten zuxun errain dauxut Donaixtitik bazuxun Castet karra, bazuxun Ithurralden karra, bazuxun Munuzetik kar bat, hori Ihurralde zera, gero bazuxun eta Ondartz eta Donapauletik, ben kar horiek zanpez betatzen zitxun gaztez.
- Bai eh?
- Ta gero Ezterenzubikoak bazixin bere karra ta beste herriek ere bazitxien beren karrak, ta guk hemen berian baginixin hori, hemen Hergaraien bazixien eta Bizkaitxipi karrak, ta horiek denek gaztiak eta biltzen zitxien, denak karretan joaiten gintxun.
- Jo, ze besta, ez?
- Ah, izigarriko gazteria bazuxun.
- Orai hila hori...
- Ba, ba, ba, ta gero ez zuxun alkohola ibiltzen e orai bezala e ordian.
- Batere, ez?
- Non, non, non, non. Gero oritzen nuxu.
- Sagarnorik eta're batere?
- Sagarnorik ere batere, Gamarteko bestaz eta oritzen nuxu eta soinu mutilek eta menta huraikilan eta grenadina eta horiek ibiltzen zitxun, gero limunada, ta gero hartako doia gero ta mutikoek gomitatzen ginuztelarik eta aperitifaño bat menturaz, holaxe, bestenaz non, limunada ta holkoikilan kontent gintxun.
- Holako gauzak.
- Ba.

39. Oihaneko lanak

- **Erref**: GAM-002/013
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:16:47. **Bukatu**: 00:17:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:
Auzoko batek egiten zituen haientzat egurrak, ikazkinik ez du ezagutu inguruan. Gaztaina-biltzen aritzen ziren

Transkripzioa
- Eta gero oihanerat ere joaiten zinten egur biltzerat eta hola?
_ Oihanerat egur biltzerat, ba kotsia bena gure, ene etxean eta erdizka emaiten zitxin, han eta bazuxun presuna bat egiten ziena eta oihanan arbolak aurtiki eta gero hak egurrak egin eta ordian egiten zien egurren erdia haindako eta beste erdia guretako. Gero guk egiten gindiena gaztain biltzia.
- Ah hori bai, ez?
- Ba.
- Ta gero saldu ere bai edo ez?
- Ez gaztaiña frango biltzen gintxin eta gero urte, negu guzian etxen gaztaiñak jaten gintxin, eta gero urdeendako're gaztaiñak.
- Nola erran duzu, padera ez gaztain...
- Pade... paderan ba, lehenik bertzan egosten gintxin, gero paderan.
- Untsa, eta ikatz egiten ezautu izan duzu hemen jenderik?
- Ez.
- Hemen ez.
- Non, non, Hemen etxit ikusi, non, non.
- Gero doaikai gazten arbolak orai beno ainitz gehio...
- Ba, gehio gaztain eta bazuxun ba, ba, ba. Etxe guzietan gaztainak biltzen zitxun, ainitz gaztaiña egiten zuxun.

40. Lehengo elikadura

- **Erref**: GAM-002/014
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:17:45. **Bukatu**: 00:19:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:
Gaztainak, salda, babak, patatak, kalabazak jaten zituzten, eta denak pozik.

Transkripzioa
- Batek lehenago, salda ta gaztaiña jaten zuxun eta esnia edan eh!
- Ta fini.
- Ah fite gero fini.
- Eta aski.
- Aski eta jendia berdin untsa zuxun. Ba, gero lehenago ibiltzen zuxun anitz ilaar ereiten zuxun artoan.
- Bai eh?
- Ba, anitz arto landan, ilar saltsa ta're jaten zuxun etxeetan, ilaarrak eta lursagarrak, patata frango're egiten zuxun, alorretan kuia frango egiten zuxun, gero zerriendako, zerrien bazkatzeko ta're, badakixu lursagar eta beterrabak eta.
- Ba, bon, bon, bon.
- Ba, eta etxeko gauzekilan bizi gintxun, sagarra're bo nik eta gure etxean, Gamarte menddian, animaleko sagarzionia're bazuxun, ta nik ikusi dixit

urtia eta buru batetik bestera sagarra jaten etxeburutik, kontserbatu Jondonibanez, ba maiatz, Jondonibane sagarrak egiten zitxun, udare sagarrak eta gero negu sagarrekilan, hek kontserbatzen zitxun hermeheriain gaiñian edo ganerrian lastoain gaiñian ta negu guzian sagarrak jaten gintxin etxekoak ba.
- Eta ez zinten aspertzen.
- Non. Gaztaiña eta gero intzaurrak.
- Ba.
- Intzaurra, eztia, gaztaiña ta gasna.
- Ta gasna.
- Ba gasna, beti ausarkian ere bagintxin gasna.

41. Artzainen bizimodua

- **Erref**: GAM-002/015
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:19:04. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Orain baino askoz ere abere gutxiago zen etxean. Artzainek oilo bat eramaten zuten mendira, baratzea ere egiten zuten. Uda guztia han igarotzen zuten. Eurek Oragatera eramaten zituzten ardiak.

Transkripzioa
- Gero kabaliak orai beno gutigo izain ziren.
- Aisa aisa gutiago. Ya, ordian ehun bat ardi baxindien, ehun ta hogoita laubost ardi baxindien pollito zuxun.
- Gero borturat eremaiten zinuzten?
- Ardiak ba, bortura joaiten zitxun ta artzaiña're gaiñian egoiten zuxun.
- Artzainak ere bai.
- Ba.
- Ta han bizi...
- Ba ta uda guzia han egoiten zitxun, ez zuxun orai bezala otoik eta're, etxetik eremaiten ziakoxien jatekoa goiti, ordian arto-irina emaiten zuxun taloak egin zitzan han.
- Ba.
- Ta xingrrak eta gero eta poxerri urineko puska batzu're eremaiten zitxun. Gero artzaiñak goiti joaitian eremaiten zixin berekin oilloa, ordian oillo bazka, oilloaindako eremaiten zitxun gero hementik beheiti goiti joaiten zenak arto bihia eremaiten zixin, han oilloak bazka zitzan. Gero, gasna egiten baitzuten, gasna denborarako're eremaiten zitxun xerri ttipiak goiti, eta artzaiñek eta erraiteko moldian denek baratzia egiten zixien gaiñian, ta gero ahuntzak're bazitxien esniandako.
- Ta non egoiten zitxun, hor Behorlegi pe hortan nola du izena Aphanize?
- Aphanize ta ba eta gu aldiz Gamarte menddiko joaiten gintxun Iratin goiti, Oragaterat.
- Nora?
- Oragaterat. Okabe, Okabe ta Okabeko han zitxien, ba.

42. Landareak etxea babesteko

- **Erref**: GAM-002/016
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:21:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Lore sorta bat jartzen zuten etxeko atean, eta elorri zuria berriz etxeko izkinetan abereak babesteko

Transkripzioa
- Gero erran baituzu, orroitu niz, Donibane egunez, Donibane bezperan egiten zinutena ziek surik eta hola? "Saint Jean".
- Ah non, hemen, hemen ez zuxun usaiarik.
- Ez zuxun usaiarik?
- ez, ez, ez dixit ikusi hemen.
- Eta bazinutena usaiarik nola... landare batzu, lore batzuen biltzeko...
- Ordian eta Jondonibane, nik orai ere giten dixit, Jondonibane goizetan, eta egin buketa eta gero borta sartzian dilindan ezarri.
- Hori ba, hori bazen.
- Ba, hori bazuxun usaia hori, eta gero, hemen eta egin dixiu eta orai ez nuxu hun egiteko hori dena, lehenago egiten gindiena eta elorri xuria.
- Ba.
- Elorri xuria bildu eta gero [foltse] eta izkinetan eta ezarri xantzaindako eta kabaleen eta zeraindako.
- A bi, eh?
- Ba, elorri xuria.

43. Heriotza errituak

- **Erref**: GAM-002/017
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:21:14. **Bukatu**: 00:23:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Bere ama hil zelarik, kanpoan sua egin zuten. Emakumeak zapi beltzekin eta gizonak banda beltz batzuekin joaten ziren hiletara. Dolua hiru urtez gordetzen zen.

Transkripzioa
- Eta ziek bazinutena usaiarik etxen norbait hiltzen bazen kabaleer eta erraiteko? Edo erleer...
- Ez nuxu, ez nuxu ohit, bena ni ohit nizana, ene ama zena, nik zazpi urte nintielarik nik ama galdu dixit.
- A bai? soizu...
- Bai, eta gero ohit nizana enterramendutik landa etxerat jiten baitziren eta apaidien egitera, ordian ez baitakit ze otoitz batzuk eta egin zuztela badakixut, eta gero kanpoan suia egin zutela.
- Suia.

- Suia ba.
- Doikai zerbait erran...
- Hak ere, hak ere bazixin bere zera, zerbait.
- Hori ez dixit entzun.
- Hori hemen bazuxun. Orai harrapa xinezake norbait, xahar batzuetarik, egiten zena, nik haurrian hori ikusirik orit nuxu.
- Ikusi duxu. Gero...
- Eta gero errain dauxut denbora hartan, ordian eta emaztiak eta're enterramendutarat joaiten zitxun animaleko kapa batzuikilan eta dena kukuturik.
- Gaizoak.
- Eta gizonek berriz eta banda beltxa eta besoan. "brassiere" bat eta beltxa besoan, eta gero berriz dolia atxikitzen zuxun eta, hiru urte.
- Gehio sufritzeko.
- Gehio sufritzeko, eta errain dauxut, ni ttipia nintxun eta zazpi urte, ene ahizpak oraino ttipiago, eta guk ere urte batez beltxez bezti eta gero eta zer, kola xuriño batekilan, eta ene ttanttak eta denak beltxez bezti eta gizonek berriz eta palto eta zerian bazixien eta banda beltx bat ezarririk.
- Ba.
- Oraino ordian sofrikarioa baduxu baño, eta aitzina eta iduri zauxuten ta xu oraino gehiago matatzen xindutela xure sofrikario hartan.
- Gaizoak. Apaizek eta ordian bai baitzuten ordian boteria eta zera.
- Ba ta gero usai bat zuxun, eta gero jinkoak begira usaia galtzen eta ez baxintien egiten eta're.
- Bena bon, bederen bazen errespetia.
- Ah ba.
- Bederen morala.
- Ba moala bena hori bortitza zuxun.
- Ba, hori gehiegi.
- Gauza bortitza, ba.

44. Bigarren ezkontzak

- **Erref**: GAM-002/018
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:23:23. **Bukatu**: 00:24:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Ez zen gizartean bigarren aldiz ezkontzea ongi ikusten. Hori dela eta desorduetan egiten ziren eztei ospakizunak. Denbora bortitzak ziren.

Transkripzioa
- Eta gero ordian denbora hetan ene ohoitian, ene ohoitian oraino, eta bon, egiten zitxun eta zerak ere, galarrotsak ere, orai konparazione eta presuna batek laguna galdia.
- Ba.
- Eta arraezkontzen zelarik, berriz esposatzen baldin bazen, bon esposatuko zuxun eta gauaz edo goizian goizik, goizeko bost orenetan edo hola, bena ordian eta hortan ere, edo gazteer eta behar zixien, gizonak pagatzen zixin apaidu bat, eta hura ez baldin bazuten egiten eta beren eta egiten zixin eta joareekilan eta zer egiten, ahalgea bezala emaiten.
- Hori...

- Ah non, "c'est"... behar dixi erran denbora bortitza zela.
- Bere alde onak eta bere alde gaxtoak.
- Ba, ba, ba.
- Dena bezala.
- Ba, bazuxun eta usai batzu ez zirenak badakixu.

45. Alemanek lurraldea hartu zuteneko gorabeherak

- **Erref**: GAM-002/020
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:25:03. **Bukatu**: 00:26:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:
Alemanak ingurua okupatu zutelarik ez zen nolanahi pasatzen ahal leku batetik bestera. Jaki zenbait eskuratzeko ere, txartel batzuk erakutsi beharra zuten. Senideek elkarren berri izan zezaten gutunak pasatzen ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Ohit nuxu eta alemanak eta Monjolosen zirelarik eta're badakixu, ordian eta bidian eta pasatzeko ta're barra bazuxun, ta baxindien "laisser passer" ta holako paper xuri batzu banda berde batekilan, ta hura behar xindien erakutsi ta ordian holako tenoretarik holako tenoretarat ez xinden bakarrik pasten ahal.
- Ze beldurra ez? Ze lotsa.
- >Ba, biziki eta gero berriz baxintien, jatekoaindako baxintien berriz eta holako karneta ttipiño batzu ta hartan tiketa batzu, ta tiketa hekilan xindien eta ukaiten hunanbeste xokoleta, hunanbeste zukre ta kafeta horiek.
- Ba eta...
- Eta gero berriz gure etxen badakixut eta irriskiak ibiliak tuztela denboran eta kurrierra eta gu "zone libre"-tan gintxun eta "zone occuppèe" ta badakixut eta bizikleta-gidoimen barnian edo arropen barnian ta're letrak eta badakixu, letrak beste alderdirat pasatzen, ta gero beste familiek ere bere, beren familien berrien ukaiteko ta.
- Bai zeren ta azkenian hori ez? Monjoloserekin eta beti ukain zinuten hori, tratu hori edo harreman hori.
- Ba, ba, ba.
- Eta egun batetik besterat, fini.
- Ba, ba, ba.
- Horiek hor ezarri zutelakotz hor muga.
- Ba, kurutxatzen gintxun beti, bena behar gintxin muga hartan paastu ta beti alemanen aitzinian pasatu.
- Ba, gaizoak. Horrekin, horrekilan ere orroitzen zira.
- Ba, hori ta, ba gaztia nintzan ta bena ez du inportarik, arrunt gaztia nintzan.

46. Lehengo garraiobideak

- **Erref**: GAM-002/021
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:26:28. **Bukatu**: 00:27:16

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:
Karrozan ibiltzen ziren. Mauleko postaria ere sarritan euren mandoan ibiltzen zen hara eta hona.

Transkripzioa
- Ta denbora hartan zaldi-karrosan ibiltzen ginen.
- Zaldiekilan, eh?
- Ba.
- Mandoa, gure etxen mandoa zen ta karrosa ta mandoak karrosa tiratzen ta hartan joaiten ginen, medikurat ere Donibanerat zaldi-karrosan joan.
- Donibanerat beti.
- Ba, ba.
- Usaia.
- Ba.
- Bon, bon, untsa duxu.
- Ta gure etxean eta gamartiarra eta pietuna, eta hura berriz e Beñat be norat joaiten zuxun, eta Mauletik Jiten zuxun kurrierra Gamarterat eta.
- Mauletik?
- Mauletik ba.
- Ta hura joaiten zuxun, ez baitakit norano joaiten zen, Donixtirat ala... ez ziadaxu iduri Maulen egoiten zela, ta joaiten zuxun kurrierrain txeka frangotan gure mandoa hartzen zixin. Ba.
- Hori ere ba.
- Hala lehengo denborak nola ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com